

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Alfonso Guilló González

*Elgoibar,
Gipuzkoa
(1953)*

Aurkibidea



Biografia



Donostian jaio zen 1953an, baina beti bizi izan da Elgoibarren. Aita katalana zen, baina ez zuen ezagutu, bera jaio aurretik hil zelako. Ama Donostiarra zen, baina amaren ama elgoibartarra; hala ere, birramama Medina de Pomarrekoa zen eta, beraz, euren etxean ez zen euskararik egiten. Elgoibarko Aita Agirre eskola nazionallean ibili zen 9 urtera arte; handik Eibarko La Salle ikastetxera joan zen eta 16 urterekin magisteritza ikastera Donostiara. Elgoibarko ikastolan lan egiteko proposamena egin zioten eta euskaraz ikasteko konpromisoa hartu zuen. Bere kontura hasi zen euskara ikasten Oñatibiaren "Euskera irrati bidez" metodoarekin eta udara bat Azkoitiko Aitolazar baserrian pasa zuen, euskalduntzen. 19 urterekin hasi zen lanean Elgoibarko ikastolan eta bertan lan egin zuen erretiroa hartu arte. Zuzendari kargua ere izan zuen hasierako urteetan. Oso gazterik hasi zen lagunekin musika jotzen eta 16 urterekin "Expresión sonora" taldea sortu zuen beste hiru lagunekin batera. 1971n "Koska" taldea sortu zuten, euskaraz abesten zuen lehenengotako rock taldea izan zena. Bi diska ere kaleratu zituzten, lehenengoa 1976an eta bigarrena 1979an. 1985ean desegin zen taldea. Hala ere musika jotzen eta sortzen jarraitzen du oraindik ere Alfonsok.

Zintak

EGB-109

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Elgoibarren

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sapsootham, Itziar
- **Data**: 2022-05-19
- **Iraupena**: 107 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar

EGB-145

- **Proiektua**: Euskararen historia soziala Elgoibarren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Odria, Haizea
- **Data**: 2025-04-10
- **Iraupena**: 59 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Baserritarrei irainak gaztelaniaz ez jakiteagatik

- **Erref**: EGB-109/004
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 00:04:28. **Bukatu**: 00:07:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskaraz jakin gabe hazi zen. Azoka egunetan (hilean behin) euskaraz entzuten zen kalean. Baserritarrek eskolak gaztelaniaz jarraitzeko arazoak zituzten. Irainak eta burlak.

2. Musikarekin oso lotuta

- **Erref**: EGB-109/007
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:10:20. **Bukatu**: 00:11:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Alfonso musikarekin oso lotuta egon da beti. Hamalau urterekin lagun batzuen artean musika-talde bat sortu zuten eta hamasei urte zituztela hasi ziren plazetan jotzen.

3. Euskara Radiofonikoarekin euskaraz ikasten

- **Erref**: EGB-109/008
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:11:40. **Bukatu**: 00:13:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Irakasle-ikasketak egiten ari zela, lagun batek esan zion euskaraz ikastea interesgarria litzatekeela, Elgoibarren ikastola zabaldu berri zegoelako. Euskaraz modu autodidaktan ikasi zuen, Euskara Radiofonikoarekin.

4. Aittola-Zar baserrian euskara ikasten I

- **Erref:** EGB-109/009
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:13:40. **Bukatu:** 00:14:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Elgoibarko ikastolan klaseak emateko euskaraz ikasi eta trebatuko zela hitzeman zuen eta uda batzuk Aittola-Zar baserrian pasa zituen. Asteburuetan, musika jotzeko Elgoibarrera jaisten zen.

5. Euskara ikasteko metodologiak

- **Erref:** EGB-109/011
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:15:14. **Bukatu:** 00:16:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Euskara ikasteko metodologiei buruz: Jon Oñatibiaren "Euskara Radiofonikoa" eta Patxi Altunaren "Euskara, hire laguna".

6. Aittola-Zar baserrian euskara ikasten I

- **Erref:** EGB-109/012
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:16:17. **Bukatu:** 00:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Aittola-Zar baserrian euskara ikasten zuen udetan. Baserriko lanetan laguntzen zuen. Euskararen egitura erabat ezberdina zenez, zaila egin zitzaion baina urte gutxitan ikasi zuen eta Elgoibarko Ikastolan irakasten hasi zen.

7. Expresión Sonorako abestiak, gaztelaniatik euskarara

- **Erref:** EGB-109/013
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:19:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Euskara ikasten hasi zenean, kontzientzia bat hartzen hasi zen. Orduan zuten "Expresion Sonora" musika taldean abestiak euskaraz sortzen hasi ziren. Hasieran, ikastolan zebilen Antton Aranburuk idazten zituen.

8. Koska taldea: kantanak, hitzak...

- **Erref:** EGB-109/014
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:19:47. **Bukatu:** 00:22:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

<p>Urte batzuez taldea geldik egin zen baina disko bat ateratzeko aukera ateratzen eta taldea bueltatu egin zen. Euskaraz abesten zuen lehenengo rock taldea izan zen, Errobirekin batera. Kanta gehienak, musikalki, Alfonsok sortutakoak dira.</p>

9. Euskal musikaren panorama aldatzen hasi zen

- **Erref:** EGB-109/015
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:22:49. **Bukatu:** 00:25:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Expresion Sonoraren bigarren diskoa Euskal Herriko testuinguru sozialarekin lotuta egon zen. Abestien egitura musikala eta euskal musikaren panorama aldatu egin ziren hizkuntza, hitzak, estetika...

10. Koska taldea: taldekideak

- **Erref:** EGB-109/017
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:28:11. **Bukatu:** 00:29:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Koska taldearen izena. Taldekideak: Endika Iriondo (bateria), Gabi Agirregomezkorta (gitarra), Luis Miguel Diego "Mitxi" (gitarra akustikoa), Txarra Gurrutxaga (gitarra eta ahotsak) eta Alfonso (baxua eta ahotsak). Soinu-teknikari bezala, Ignacio Garate.</p>

11. Expresion Sonora: taldekideak, lehenengo kontzertua

- **Erref:** EGB-109/019

- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:30:39. **Bukatu:** 00:33:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Expresion Sonorako taldekideak: Gabi Agirregomezkorta, Patxi Garcia, Luis Mari Arakistain eta Alfonso Guilló. Lehenengo kontzertua 1969an eman zuten Elgoibarren. Ingalaterrako rock taldeen bertsioak egiten zituzten

12. Expresion Sonora: bertsioak ingelesez

- **Erref:** EGB-109/020
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:33:42. **Bukatu:** 00:35:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Ingelesezko bertsioak jotzeko aurreko lana. Irratiaren bidez ezagutzen zituzten talde ingelesak eta gero diskoak erosten zituzten. Musika-dendak.

13. Expresion Sonoraren fama

- **Erref:** EGB-109/024
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:39:09. **Bukatu:** 00:41:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Euskal rock eszenaren hasierako taldeak, musikariak, kontzertuak, sariak... Expresion Sonora taldearekin sari bat irabazi zuten eta horrek fama eman zien.

14. Koska musika-taldearen hitzak, euskaraz

- **Erref:** EGB-109/025
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:41:50. **Bukatu:** 00:44:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Expresion Sonora-tik, 1971n Koska taldea sortu zuten. Euskarazko bertsioak egiteko erabakia hartu zuten, nahiz eta aldaketa progresiboki egin zuten.

15. Euskal musikaren zentsura

- **Erref:** EGB-109/026
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:44:10. **Bukatu:** 00:47:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Antton Aranburuk Koskaren kanten hitzak idazten zituen, haiek emandako silabak emanez. Zuzenean jotzeko ez, baina disko grabatzerako orduan, abestiek zentsura pasa behar zuten. Zuzenekoetan, gobernadore zibilaren baimena behar izaten zuten.

16. Musika jotzeko karnet bat behar zen

- **Erref:** EGB-109/027
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:47:40. **Bukatu:** 00:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Frankismo garaian, musikariek, jotzeko karnet bat atera behar zuten. Donostiako La Perlara joan ziren hura lortzeko.

17. Jendearen harrera, euskaraz jotzeagatik

- **Erref:** EGB-109/030
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:50:37. **Bukatu:** 00:53:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Euskaraz abesteak, posizionamendu politiko bat suposatzen zuen. Ekintza aurrerakoia izan zen eta gaur egun mantentzen den jarrera bat da. Labriten gertatutako pasadizo bat kontatzen du. Gizarteak, euskara bandera bezala hartu zuen.

18. Koskaren ondoren sortutako taldeak

- **Erref:** EGB-109/031
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:53:50. **Bukatu:** 00:57:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Euskal rock-a sortu aurretik, kantautoreak bazeuden. Beraien ostean sortutako taldeak: Itoitz, Akelarre, Izukaiz... Gaur egun, musika egiten bada ere, ez da gorpuzten.

19. Rock-a ez zen euskal musikatzat hartzen

- **Erref:** EGB-109/032
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:57:47. **Bukatu:** 01:00:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Koskarekin diskoa grabatu nahi izan zutenean, diskoetxe ezberdinetan galdezka ibili ziren (Herri gogoa. Artesi, Argia...) baina orduan, rock-a ez zen euskal musikatzat hartzen nahiz eta euskarazko kantak izan.

20. Elgoibarko ikastolako hasierako irakasleak

- **Erref:** EGB-109/036
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:03:10. **Bukatu:** 01:04:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Elgoibarko ikastolako hasierako irakasleak: Nekane Iturbe, Nekane Zubiaurre, Marixabel Mujika, Edurne Lasa, Antton Aranburu, Txomin Urdanpilleta, Angel (Ugarteburu), Andres (Alberdi), Iñazio, Mari Kruz Intxausti, Koldo Leibar, Jose Luis Murgoitio...

21. Elgoibarko ikastola: kokapenak

- **Erref:** EGB-109/037
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:04:32. **Bukatu:** 01:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Elgoibarko ikastolako eraikin berria eraiki aurretik (1976), lokal ezberdinetan ematen zituzten klaseak: elizako gela batzuetan, San Frantzisko kalean, Santa Ana kalean...

22. Elgoibarko ikastola eta gurasoen inplikazioa

- **Erref:** EGB-109/038
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:05:50. **Bukatu:** 01:07:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Elgoibarko ikastolan, gurasoek egindako lana handia izan zen: lokalak bilatu, irakasleak kontratatu, kooperatiba sortu... Guraso guztiek sinatu zuten, kontzientzia handiagoa izateko proiektuaren aurrean. 1979an, ikastolako eraikin berria zabaldu zen. Herri guztia zegoen ikastolaren alde.</p>

23. Elgoibarko ikastola eta elizaren laguntza

- **Erref:** EGB-109/039
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:07:04. **Bukatu:** 01:08:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Elgoibarko ikastolaren sorrera, elizaren babesa ezinbestekoa izan zen. Juan Beristain eta Carlos Agirre Garagarza abadeak izan ziren ikastolako lehenengo zuzendari ofizialak.</p>

24. Elgoibarko ikastolako lehenengo zuzendariak

- **Erref:** EGB-109/041
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:09:58. **Bukatu:** 01:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Hasiera batean, Elgoibarko Ikastola eta Elgoibarko Izarrak elkarrekin lan egiten zuten baina gutxinaka banatzen joan ziren. Jesus Bilbao, lehenengo zuzendaria.</p>

25. Aubixako aterpetxea

- **Erref:** EGB-109/047
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 01:19:32. **Bukatu:** 01:22:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:

<p>Elgoibarko Ikastolak, Aubixako udalekuaren sorreran izan zuen papera. Gurasoek aukeratu zuten baserria, lanak egin zituzten... Hasierako urteetan, udalekua ikastolako haurrentzat bakarrik zen. Begirale-lanak egiten.</p>

26. Aubixako aterpetxea: helburua

- **Erref:** EGB-109/048
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:22:43. **Bukatu:** 01:24:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:

<p>Aubixako aterpetxean egiten ziren jolasak. Helburu nagusia, ikastolatik kanpo euskaraz egiten jarraitzea zen. Ikastolako haur gehienak euskaldun familiakoak ziren.</p>

27. Lehenengo hitza beti euskaraz

- **Erref:** EGB-109/049
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 01:24:04. **Bukatu:** 01:26:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gaur egun euskararen hedadura handitu egin da. Garrantzitsuen, lehenengo hitza beti euskaraz izatea da.

28. Ikastolako liburuak, hasieran gaztelaniaz

- **Erref:** EGB-109/050
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:26:35. **Bukatu:** 01:27:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Elgoibarko ikastolaren hasieretan, material guztia gaztelaniaz zen baina poliki-poliki aldatzen doa. Saioka.

29. UNED-eko euskarazko ikastaroak

- **Erref:** EGB-109/051
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:27:57. **Bukatu:** 01:29:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

UNED-en euskarazko ziurtagiriak ateratzeko, bere kabuz euskal literatura eta idazki asko kontsumitu zituen. Tutorerik ez zuen izan eta azkenean ezin izan zuen ziurtagiria lortu. Larunbat goizetan ikastaroetara joaten zen.

30. Kilometroak 1996 Elgoibarren

- **Erref:** EGB-109/054
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 01:33:40. **Bukatu:** 01:36:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastolen publikazioan, Elgoibarko ikastola ez zen publikora aldatu eta krisi handi batean sartu zen. Kilometroak Elgoibarren.

31. Elgoibarko ikastolagatik lan egindakoak

- **Erref:** EGB-109/055
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 01:36:44. **Bukatu:** 01:40:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Elgoibarko ikastolan parte hartu duten pertsona klabeak: Felix Etxeberria eta "Plaentxi"; lehenengo guraso taldea, ikastolako eta gau-eskolako irakasleak, ikasleak eta Elgoibarko herria.</p>

32. Euskalduna sentitzea, euskara gaztetan ikasita

- **Erref:** EGB-109/057
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 01:43:35. **Bukatu:** 01:46:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Euskara ikasten hasi zenean, beste errealitate bat zabaldu zitzaion. Bere hizkuntza da, nahiz eta ez izan ama-hizkuntza. Euskal Herri euskaldun batean sinesten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-05-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com